

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****2026ko Aurrekontu Orokorra**

Udalbatzak, 2026ko otsailaren 25ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman dio 2026ko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorrari. Aurrekontu horren barruan sartzen dira Durangoko Udala, bere erakunde autonomoak (Astarloa Kulturgintza, Durango Kirolak, Udal Euskaltegia eta Bartolome Ertzila Musika Eskola, eta Durango Eraikitzen, S.A. sozietate publikoa), Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 6. artikuluan eskatutako edukiarekin, bai eta Aurrekontuak Betearazteko Araua eta funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen plantilla organikoa ere.

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15.1 artikulua jarraituz, espedientearen dokumentazio guztia Udal honetako Idazkaritzan jendaurrean jartzen da, aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Era berean, udal atariko <https://www.durango.eus/es/presupuestos2026> URL-an egongo da eskuragarri.

10/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua arabera legitimatuta dauden interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzari, Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitako arrazoen arabera, hamabost (15) egun balioduneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aipatutako aurrekontu orokorra behin betiko onetsizat joko da, berriro beste akordio bat hartu beharrik gabe.

Durangon, 2026ko otsailaren 26an. — Alkatesa, Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia